## ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA MAIATZAREN 17A DELA ETA

Maiatzaren 17a Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Data horretan, duela soilik 29 urte, kendu zuen homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik OMEren batzar orokorrak.

Eta gizartean dibertsitate sexualari eta genero identitateari buruz zegoen ikuspegia aldatuz joan den arren, oraindik asko falta zaigu desira eta genero orientazioari buruzko aurreiritzietan oinarritutako gizarte jarrerak aldatzeko. Gaur egun, munduko 70 herrialdek baino gehiagok homosexualitatea eta transexualitatea kriminalizatzen dituzte oraindik ere, eta kartzela zigorrak eta are heriotza zigorrak ere ezartzen dituzte.

Gure lurraldean ere LGTBQIfobiaren adierazpen zuzenak, kulturalak eta sinbolikoak ditugu oraindik, eta Arabako Foru Aldundiak horien aurka borrokatzeko konpromiso sendoa du.

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planean adierazten da homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia edo genero barruko indarkeria ere harreman heteronormatiboen testuinguruan gertatzen diren indarkeria matxistak direla. Horiek horrela, emakumeen aurkako indarkerien eta beste indarkeria batzuen aurkako lan ildoan, gizartea LGTBQIen eskubideen inguruan sentsibilizatzeko neurri bat dago jasota.

Izan ere, afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko moduekiko intolerantzia adierazpenak oztopo dira errespetuzko elkarbizitzarako. Horregatik, ezinbestekoa da patriarkatuaren mekanismoak desegitea, diskriminazioa errotik kentzea eta maskulinotasun eta feminitate hegemonikoen ereduei erantzuten ez dieten askotariko pertsonen

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ARABA EN LA CONMEMORACIÓN DEL 17M

El próximo 17 de mayo se conmemora el Día Internacional contra la Homofobia, la Transfobia y la Bifobia. En esa fecha, hace solo 29 años, se eliminó la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales por parte de la Asamblea General de la OMS.

Aunque se han dado avances en cuanto a la percepción social de la diversidad sexual e identidad de género, todavía estamos lejos de lograr un cambio en las actitudes sociales prejuiciosas que mantiene la sociedad acerca de la orientación del deseo y del género de las personas. Hoy en día en más de 70 países en el mundo criminalizan la homosexualidad y la transexualidad con penas de prisión, o incluso de muerte.

Nuestro territorio no está exento de las manifestaciones directas, culturales y simbólicas de la LGTBQIfobia y la Diputación Foral de Álava tiene el firme compromiso de luchar contra ellas.

El IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Álava señala la homofobia, la lesbofobia, la bifobia, la transfobia o la violencia intragénero como formas de violencia machista que se inscriben en el marco de las relaciones heteronormativas. En este sentido, en el eje de Violencias contra las mujeres y otras violencias machistas, se incluye una medida encaminada a sensibilizar en el respeto de los derechos de las personas LGTBQI.

Las muestras de intolerancia hacia las diferentes expresiones de la afectividad y la sexualidad son un obstáculo para la convivencia respetuosa. Es indispensable desmontar los mecanismos de reproducción patriarcal, erradicar la discriminación y denunciar cada ataque a personas diversas que no responden a los

aurkako erasoak salatzea. Ezaugarri ezberdinak ditugulako, pertsona guztiak gara ezberdinak, eta hain zuzen ere ezaugarri horiek, jatorriarekin, etniarekin, adinarekin, hizkuntzarekin, gaitasunekin eta abarrekin lotutakoek, aberastu egiten dute gure lurraldea.

Arabako Foru Aldundiak gaitzespena agertu nahi du identitatearen edo sexu orientazioaren ziozko diskriminazio, gutxiespen eta erasoen aurrean.

Eta herritarrak gonbidatzen ditu bai erakundeek, bai Arabako kolektiboek maiatzaren 17a dela eta antolatutako jardueretan parte hartzera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a

modelos hegemónicos de masculinidad y feminidad. Porque todas las personas somos diversas en cuanto a las diferentes características que nos definen, y precisamente estas diferencias: de origen, etnia, edad, lengua, capacidad… aportan riqueza a nuestro territorio.

La Diputación Foral de Álava quiere expresar su repulsa ante todo acto de discriminación, rechazo o agresión por razón de la identidad y la orientación sexual.

Asimismo, invita a la ciudadanía a participar en las distintas actividades que se convocan, tanto desde las instituciones como desde los colectivos de Álava que tendrán lugar en torno al día 17 de mayo.

Vitoria-Gasteiz, 13 de mayo de 2019